BDNSn ARGITARATU BEHARREKO DIRULAGUNTZA-DEIALDIEN LABURPENAK IDAZTEKO PROPOSAMENA

Dirulaguntzak norgehiagoka araubidez emateko deialdia 2025.urtea

Zarauzko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025ko urriaren 20ko Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, ZARAUZKO GAZTEEK ZARAUTZI BURUZKO GRAL ETA MAL PROIEKTUAK GARATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO 2025. URTEKO DEIALDIA egin zen.

(Laburpenaren testua)

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke.

Onuradunak:

Dirulaguntza hauek eskatu ahal izango dituzte pertsona fisikoek. Eskatzaileek 21-30 urte bitartean izango dituzte eta Zarautzen erroldatuta egon beharko dira dirulaguntzetarako eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta gainera, Zarautzen erroldatuta egon beharko dira aurreko hiru urtetan (etenik gabe), edo gutxienez 10 urtetan, etenekin.

Gainera, onuradunek GRAL edo MAL ikasgaian matrikulatuta egon beharko dute.

GRALaren edo MALaren behin betiko nota jasota egon beharko da eta lanek 10etik gutxienez 6ko nota izan beharko dute, Zarautzi buruzkoak izango dira eta euskaraz idatzitakoak.

Helburua:

Deialdi honen helburua da baldintza batzuk jartzea, Zarauzko Udaleko Gazteria Departamentuak gazteei, norgehiagoka araubidez, bekak emateko Gradu amaierako Lanak (GRAL) eta Master Amaierako Lanak (MAL) idazteko.

Beka horien bidez, gazteen lanei balio eta hedapena eman nahi zaie , betiere, lanok Zarautzekin erlaziorik badute (ekimenak, zerbitzuak, industria, historia…). Bekak eman ondoren, Udalak antolatutako aurkezpen-saio publiko bat egingo da.

Oinarri arautzaileak:

Oinarri espezifiko hauetan aurreikusi ez den orotan beste arau hauek aplikatuko dira:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa (2003ko azaroaren 18ko EAO, 276 zk.).
- 887/2006 errege dekretu, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena (2006ko uztailaren 25eko EAO, 176 zk.).
- Zarauzko Udaleko dirulaguntzen ordenantza orokor arautzailea (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2024ko apirilaren 5ekoa, 66. Zk.).
- Zarautzi buruzko Gradu Amaierako Lanak (GRAL) eta Master Amaierako Lanak (MAL) laguntzeko beken oinarri espezifikoak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2025eko irailaren 22an, 180 zk.).

Zenbatekoa: 10.000€

Eskabideak aurkezteko epea: 30 egun natural

(Itxiera)

(Aplikazioak ematen du)